

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua

e5 – Euskararen Etorzkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen

Lehenengo Mintegian sakontzeko GALDETEGIA

2107ko azaroa

AURKIBIDEA:

1. Zer da dokumentu hau?
2. e5 Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak
3. Proiektuaren balidazioa Mintegian
4. Bibliografia
5. Delphiaren galdetegia

1. Zer da dokumentu hau?

Pasa den ekainean **e5 Lan-ildoaren** 1. Mintegia burutu genuen Gasteizen. Bertan proiektua azaltzearekin batera, proposatutako eredia balidatzeko eta ekarpenak jasotzeko *Kontraste-elkarrizketak* gauzatu ziren, eta *Komunitatearen Kapitalen Mapa* lantzeko lehen *Tailer Apreziatiboa* ere bideratu zen.

Mintegian egindako lehen talde-hausnarketari segida emanez, mintegian parte hartu edota interesa adierazi duzuen pertsonoi aditu gisako **ekarpen pertsonala eskatu nahi dizuegu** Delphi moduko galdetegi honen bidez, honako helburuekin:

- Komunitatearen Kapitalen Mapeoari buruz Mintegian jasotakoetan sakontzeko.
- Proiektuaren hurrengo urratsaren 2. Mintegiari begira oinarri-materialak prestatzeko.

2. e5 Lan-ildoaren ezaugarri nagusiak


e5 Proiektua Eusko Ikaskuntzaren Mendeurrena eta XVIII. Kongresuaren baitan txertatzen den egitasmoa da. Bere helburu nagusia **Datozen hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea** da. Eta horretarako, azpi-helburu gisa:

- Gizarte-eraldaketarako praxia bultzatzen lagunduko duen **marko interpretatibo** berria lantzea, euskaraz garatu nahi duen *euskal komunitatearen kapitalen* analisisetan oinarritua.
- Komunitatearen kapital horietan oinarrituta, etorkizunerako *amestutako eszenarioen konstelazioa* irudikatzea.
- *Desiratutako Eszenarioen Konstelazio* horretara iristeko *bide-orriaren arkitektura* lantzea, ezagutza eta praktika mailako ekarpen anitzak jasoz.

Proiektua hiru indar-idea nagusitan oinarritzen da:

- **Polizentrismoa.** *Gizarte indarrak anitzak dira, polizentrikoak*
- **Sinkronizazioa.** *Polizentrismoaren konplexutasunean, bateratasun uniformeak baino, heterogeneidadeen sinkronizazioak har dezake balioa*
- **Komunitatea.** *Fokua ez da euskararen egoeran jartzen, euskaraz garatu nahi duen komunitatean baizik. Bere egungo baliabide eta etorkizuneko proiektioetan.*

Proiektuaren eredu metodologikoa *Arakatzeko apreziatiboaren* ikuspegian oinarritutako eraldaketa-hausnarketan fokatutako da. Sistemaren muin positiboan zentratzen den arakatzeko eta eraikitze prozesu kolaboratzailea, dauden indarrak apreziatuz eta balioan jarriz.




Kontzeptuen definizioa:

- **Komunitatea.** Kontzeptu konplexu eta multidimensionalak. Garapen komunitarioaren ikuspuntu batetik (Eito eta Gomez, 2013; Hillery, 1955; Marchione, 2004), komunitatea giza-talde bat da, espazio/lurraldea, ezaugarri kolektiboak, harremanak eta interakzio pautak partekatzen dituen, eta bere garapenerako hainbat baliabide eta bere baitatik sortzen diren hainbat nahikunde eta demanda partekatuak ere badituen.
- **Euskal Komunitatea.** Bere gizarte garapenerako eta sozializatorako perspektiban, eta hizkuntza aniztasunaren testuinguruan, lurraldeko hizkuntzarekiko (euskararekiko) identifikazioa, sentimenduak, eta jarrera eta portaera aktibo eta positibo komunak partekatzen dituen komunitatea (Hernandez, 2008; Kasares, 2012, 2015; Tejerina, 1992).
- **Komunitatearen Kapitala.** Komunitateak bere garapenean etorkizuneko helburuak erdiesteko sortu edota eskura dituen aktiboen (baliabideen) multzoa da.
- **Aktiboak.** Eraitza berriak sortze aldera gara-indarra eduki dezaketen baliabide edota errekurtsioak dira. Aktibo horiek ahalbide berriak agerrarazteko baliatzen direnean, Kapital bihurtzen dira.

Kapitalen aktiboak izan daitezke ukigarriak (eraikinak, diru baliabideak, argitalpenak, ..) edo ez-ukigarriak (sare sozialak, lidergo ahalmenak, eragin politikoa, ..). Aktibo horiek areagotu edo agortu egin daitezke. Esate baterako, giza-kapitalaren alorrean pertsonen hizkuntza-lidergoak indartzeko inbertsioa egiteak ekar dezake gero pertsona horien gaitasunak eta ahalmenak areagotzea (giza-kapitala), pertsona horiek gizarte sare berriak sustatzea (gizarte kapitala), edo jardun politikoan eragitea eta hizkuntza politikak bultzatzea (kapital politikoa). Aitzitik, aktiboak agortzen direnean, ez dituzte baliabide edota ahalbide berriak sortarazten.


Erreferentziatzko Komunitate-kapitalen eredia:

Proiektu honetan kapitalen analisirako proposatzen den erreferentziatzko eredia, Emery, Fey eta Cornelia (2006) egileek komunitatearen aldaketa positiborako landutako *Community Capitals Framework* ereduaren egokitzapena da. Ondoko irudian agertzen dena.



3. Proiektuaren balidazioa Mintegian

Ekainean egindako Mintegian, proiektua aurkeztu ondoren, proposatutako ereduari ekarpenak egiteko eta berau balidatzeko kontraste-elkarrizketak egiteko tarte ireki zen. Partaideak hiruna kidez osatutako mahaitxoetan elkartu ziren eta emandako galdetegiari erantzunez proiektuari balorazio kuantitatiboa eman eta ekarpen kualitatiboak egin zizkioten:



Grafikoak erakusten duen moduan, proiektuaren bultzatzearen aldeko iritzia garbia azaldu zuten bertan elkartutakoek, 4.5eko batez besteko balorazioarekin.

Egindako beste zenbait iruzkin, dokumentu honetan kontuan eduki dira, esate baterako kontzeptuen definizioan sakontzerakoan.

4. Bibliografia

- › Eito, A. eta Gomez, J. (2013). El concepto de comunidad y trabajo social. *Revista Espacios Transnacionales* (1), 10-16.
- › Hernandez, J.M. (2008). Euskara birpentsatu beharra, ekarpen batzuk antropologiatik. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 69, 2008 (4), 27-42.
- › Hillery, G. A. (1955). Definitions of Community: Areas of Agreement. *Rural Sociology* (20), 111-123.
- › Kasares, P. (2012). Euskaldun hazi Irunean. Inguru erdaldun(du)etako familien hizkuntza elkarrekintzak eta komunitate aukerak. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 85, 2012 (4), 143-158.
- › MArchioni, M. (2004). *La acción social en y con la comunidad*. Zaragoza: Certeza
- › Tejerina, B. (1992). *Nacionalismo y lengua*. Madrid: CIS – Siglo XXI

5. Delphiaren galdetegia

Esan bezala, mintegian parte hartu edota interesa adierazi zenuten pertsonoi aditu gisako **ekarpen pertsonala eskatu nahi dizuegu** Delphi moduko galdetegi honen bidez. Ez dituzu Kapital guztiak aztertu behar. Erantzun soilik ondoen ezagutzen edo hurbilen d(it)uzun Kapitalei dagokiona. Mila esker!

Oharra: Hausnarketa honetan ez gara euskararen egoera aztertzen ari, euskaraz garatu nahi duen komunitateak bere xede horretarako eskura dituen aktibo/baliabideak eta horien eragin-ahalmena identifikatu nahian ari gara.

Kapital Kulturelean AKTIBOAK

Ekaineko Mintegian jasotakoak	Mintegian jasotakoaz gain, zure ustez euskal komunitateak zein aktibo edo baliabide gehiago ditu kapital honetan?	Mintegian jasotakoetatik, baten bat kendu edo zuzenduko zenuke?
<ul style="list-style-type: none"> • Ondarea • Singularitatearen indarra. Hizkuntza propioa eta desberdina izatearen balioa. • Nortasuna/identitatea: euskal hizkuntza eta kulturak bereizten gaitu • Identitatea, komunitate baten tokia, nor izan • Euskarak duen balio sinbolikoa, sentimendu positiboekin lotzen da. • Integraziorako duen balioaren pertzepzioa, bertako komunitateko partaide sentitzeko bide da. • Euskarak kohesio elementu gisa (integratzaile) duen kontsiderazioa. • Aniztasuna/eleaniztasuna: kultura anitzak -> adierazpen kultural anitzak • Arnasguneetan denboran iraun duen ekosistemak • Dinamismoa. Kultur espresio anitz eta aberatsak. • Interneten presentzia • Bertsolaritzaren erreferentzialtasuna. • Euskararen biziberritzea bera balio bat bihurtu da (hemen, eta atzerrian) • Euskaldun izateak ematen duen elkartasun eta batasun sentimenduak eragin zuzena ekonomia proiektuetan, politikan boterea bereganatzeko • EH-n kultur kontsumorik handiena euskaldunen artean dago. • Euskal sortzaileen oparotasuna eta ugaritasuna, autoestimua sendotzeko • Kultur sorkuntza aktiboa eta kalitatezkoa 		

Kapital Kulturelean AKTIBOAK

Zerrendatutako aktibo guzti horietatik, zeintzuk dira zure ustez kapital honetan indartsuenak izan daitezkeenak?	Aktibo horiek bizkortuz gero, zure ustez, zertan eragin dezakete? Zein izan daiteke beren eragin-ahalmena? Zein 'palankak' aktiba ditzakete?
<p>1.</p> <p>2.</p> <p>...</p>	

Giza Kapitalean AKTIBOAK		
Ekaineko Mintegian jasotakoak	Mintegian jasotakoaz gain, zure ustez euskal komunitateak zein aktibo edo baliabide gehiago ditu kapital honetan?	Mintegian jasotakoetatik, baten bat kendu edo zuzenduko zenuke?
<ul style="list-style-type: none"> • Aiton-amon alfabetatu gabeen eredu haur, guraso eta irakasleentzat, eta alderantziz • Gaitasun-konpetentzia-indar emozionala • Izaera erradiaktiboa, Asertibitatea, Aitzindaritzza (Barakaldoko rapa) • Indarra. Inplikazio maila • Ilusioa. Erakartzeko gogoia • Etorkinak: Integratu direnak, eredu direnak • Hiztunak arlo askotan egotea • Arnasguneetako herritarrak • Euskararen militanteak • Euskaraz ulertzen duten gero eta pertsona gehiago • Euskararekiko atxikimendua (MAITE DUGU!) • Eratzeko/elkartzeko gaitasuna (norbanakoa-taldea) • Motibazioa, zerbaiten alde egiteko ohitura • Berbalagun kideak • Euskara ikasten ari direnak • Euskaldunak + euskaltzaleak • Ibilaldietara joaten direnak (KMK, Araba Euskaraz,...) • Hizkuntzak aberastasun moduan ikusten dituztenak • Profesionalak kontzienteak eta aktiboak 		

Giza Kapitalean AKTIBOAK

Zerrendatutako aktibo guzti horietatik, zeintzuk dira zure ustez kapital honetan indartsuenak izan daitezkeenak?	Aktibo horiek bizkortuz gero, zure ustez, zertan eragin dezakete? Zein izan daiteke beren eragin-ahalmena? Zein 'palankak' aktiba ditzakete?
1. 2. ...	

Kapital Politikoan AKTIBOAK		
Ekaineko Mintegian jasotakoak	Mintegian jasotakoaz gain, zure ustez euskal komunitateak zein aktibo edo baliabide gehiago ditu kapital honetan?	Mintegian jasotakoetatik, baten bat kendu edo zuzenduko zenuke?
<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen ofizialtasuna (hala dagoenetan) • Salbuespenak salbuespen, gero eta zailagoa da botere politikoa eskuratzea, euskararen kontrako jarrera esplizitu batetik • Erakunde publikoetan inoizko indarrak handiena • Erakunde asko euskararen aldeko indar politikoen pean daude • Etorkizunean erakundeetan aginduko dutenak euskaldunak izango dira. • Euskararen legea. Bestelako lege eta arauak. • Erakundeko euskara planak maila guztietan • Euskal Lurralde Elkargoak euskararen lan-ildoak du (EKEekin uztargarria, gainera) • Nafarroan aldatetaren aldeko emaitzak • Nafarroan azken aldia euskararen normalizazioa bermatzea helburu duen hizkuntza politika adostu da • Nafarroako udalerrri askok ez-euskaldunetik mistora eta mistotik euskaldunera pasatzeko eskaria egin dute • Hizkuntza politiken babes sozial altua. • Hizkuntza politika maila akademikoan • Elkarrekin lan egiteko gogo eta erabakia erakundeen aldetik • HAKOBA: ekimenak bateratzeko aukera • Hizkuntza politikaren ekimenak bateratzen ari dira • Geroz eta elkarriketa normalagoa euskalgintzaren eta erakundeen artean • EITBren legean bere izaera propioa izatea euskarak (badu) • Jarrerak aldekoak dira herritarrengan eta horiek bozkatzeko dute gero • Munduko 6 hiriburutako alkateak euskaldunak dira • Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa • Euskararen lurraldean 'batera' aritzeko aukera dago 		

Kapital Politikoan AKTIBOAK

Zerrendatutako aktibo guzti horietatik, zeintzuk dira zure ustez kapital honetan indartsuenak izan daitezkeenak?	Aktibo horiek bizkortuz gero, zure ustez, zertan eragin dezakete? Zein izan daiteke beren eragin-ahalmena? Zein 'palankak' aktiba ditzakete?
1. 2. ...	

Kapital Sozialean AKTIBOAK		
Ekaineko Mintegian jasotakoak	Mintegian jasotakoaz gain, zure ustez euskal komunitateak zein aktibo edo baliabide gehiago ditu kapital honetan?	Mintegian jasotakoetatik, baten bat kendu edo zuzenduko zenuke?
<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen inplikazio aktiboa euskararekin • Aurrera egiteko norabide batean gaude • Diskurtsoan asko ari da lantzen "zubilana"ren ideia. • Helburu bateratuen inguruko adostasuna • Erakunde aniztasuna (ideologikoa eta sektoriala) • Korrikan atxikimendu anitzak • Sindikatuak euskararen gaineko jardunaldiak egiten • Jende asko dago komunitatearen balio kulturalak lantzeko prest • Sinergiak probesteko aukerak • Euskararen Lurraldean lan egiteko aukerak • Era guztietako elkarteak sortzeko tradizioa / zaletasuna • Euskara 'helburu' ez duten zenbait erakundek euskararekiko atxikimendua • Hizkuntzarekiko atxikimendua • Jende asko eta asko dago aldaketa sozialerako lan egiteko prest • Komunitate edo sareko kide izateko sentimendu sendoak • Erakunde arteko lehia (motore lana): proposamen ezberdinak • Kapital sozialaren aniztasun • Nahia (indibiduala) ↔ Gaitasuna (kolektiboa) • Pertsonen kolektiboaren indarra: Oso prestatuak, oso profesionalak, Motibatuak, kontzientziadunak, Elkarrekin ondo konektatuak, sarean lan egiten, Erakundeetan antolatuak • Euskalgintza sektore berritzailea da eta gizartearen onarpena du • Kapital soziala sortzen eta birsortzen klabeak diren bi sektore indartsu: irakaskuntza, komunikabideen sarea • Euskalgintza/euskaldunak lobby moduan jokatzeko baldintzak daude: euskalgintza sektore potentea da, eta euskaldunak ekonomikoki eta sozialki ondo posizionatuak. • Euskara gizarte sektore guztietara eraman dugu: jarduera guztietan izan du sarbidea (handiagoa ala txikiagoa). 		

Kapital Sozialean AKTIBOAK

Zerrendatutako aktibo guzti horietatik, zeintzuk dira zure ustez kapital honetan indartsuenak izan daitezkeenak?	Aktibo horiek bizkortuz gero, zure ustez, zertan eragin dezakete? Zein izan daiteke beren eragin-ahalmena? Zein 'palankak' aktiba ditzakete?
1. 2. ...	

Kapital Ekonomikoan AKTIBOAK		
Ekaineko Mintegian jasotakoak	Mintegian jasotakoaz gain, zure ustez euskal komunitateak zein aktibo edo baliabide gehiago ditu kapital honetan?	Mintegian jasotakoetatik, baten bat kendu edo zuzenduko zenuke?
<ul style="list-style-type: none"> • Euskaldunak elite ekonomiko bat gara • Euskara beharrezkoa da sozialki igotzeko • Euskarak bidea ireki du mundu ekonomikoan. Enpresetan sartu da (batez ere Gipuzkoan eta batez ere kooperatibetan) • Euskarak balio erantsia duela erakutsi du. Bi hizkuntza kudeatzen jakin duten enpresei errazago izan zaie nazioartera irekitzea • Errigora proiektua • Lana topatzeko duen balioa • 'Fundazio' bai publiko bai pribatuak eskaintzen dituzten baliabideak • Aurrekontu publikoetan jasotzen diren baliabideak • Norbanakoek eta familiek euskarari eskaintzen dizkieten baliabideak • Produktuak euskaraz jartzea onura ekonomikoa dute • Euskara garatzeko zenbait erakundek egindako inbertsioak errentagarriak dira • Erakunde eta enpresetan euskarari gordetzen zaion aurrekontua: aktiboak dira!! • Euskaraz lan egitearen onuraren diskurtsoa. Konplizitatea, konfidantza, etekina. • Publizitatea, euskaldunontzat, euskaraz egiteak eskeintzen duen balio erantsia: hurbiltasuna, zinesgarritasuna, bertakotasuna... 		

Kapital Ekonomikoan AKTIBOAK

Zerrendatutako aktibo guzti horietatik, zeintzuk dira zure ustez kapital honetan indartsuenak izan daitezkeenak?	Aktibo horiek bizkortuz gero, zure ustez, zertan eragin dezakete? Zein izan daiteke beren eragin-ahalmena? Zein 'palankak' aktiba ditzakete?
1. 2. ...	

(Azpi)Egitura Kapitalean AKTIBOAK

Ekaineko Mintegian jasotakoak	Mintegian jasotakoaz gain, zure ustez euskal komunitateak zein aktibo edo baliabide gehiago ditu kapital honetan?	Mintegian jasotakoetatik, baten bat kendu edo zuzenduko zenuke?
<ul style="list-style-type: none"> • Euskal komunitatea interneten • Tokiko hedabideak. Maila nazioaleko hedabideak • Herri ekimenetik sortutako euskarazko hezkuntza • Hezkuntza elebiduna (bereziki murgiltzea) euskal komunitatea areagotzeko • Hezkuntza publikoko guraso taldeak • Idazle elkarteak. Itzultzaile elkarteak • Bertsozale elkarteak • Kirol Elkarteak • EHAZE • Topagunea • Aisialdia garatu ahal izateko azpiegiturak • Euskalduntze alfabetatze sareak • Lankidetzarako GKEak • Mugimendu feminista • ADMINISTRAZIOA. Euskara Saila, Batzorde zerbitzuak. UEMA. Administrazioiko Sail politiko-administratibo euskaldun eta euskaltzaleak. • EUSKALTZAINDIA. + corpus-ean ari diren erakundeak • IRAKASKUNTZA. Sareak. Ikastetxeak. Sindikatuak. Guraso elkarteak. Euskararen festak. Euskal Curriculuma. EKI (ikasmaterialgintza) • INTERNET/IKT. Blogariak/Youtuberrak. Baliabide teknologikoak. Euskal wikipedia • HERRIGINTZA. Kontseilua. Euskaltegiak. Topagunea + herrietako taldeak. Behatokia. Aholkularitza profesionala. Errigora • LAN MUNDUA. Euskal talde/batzorde. Sindikatuetakoko euskal adarrak • KOMUNIKABIDEAK. Hekimen. Tokikom. EITBren euskal adarrak. EITBren profesionalak. Erdal hedabideetako euskal kazetariak. Euskarazko / Euskal hedabideak. • <i>[jarraitzen du]</i> 		

<ul style="list-style-type: none"> • KULTURA. Argitaletxeak. Disketxeak. Antzerki taldeak. Musika taldeak. Talde profesionalak. Interneteko eragileak. Puntu.eus / eus domeinua. • EKKI (=SGAE). Euskal kultura sustatzea lehentasun duten azpiegitura kultural anitza. Euskal kulturagileen lanak gizarteratzeko espazioak (antzoki, areto...). Irrien lagunak. • UNIBERTSITATEA. Euskal adarrak. Ikerketa gunek. Euskal taldeak. • BESTE BATZUK. Euskarazko produktuak ekoizten dituzten enpresak. 		
--	--	--

(Azpi)Egitura Kapitalean AKTIBOAK

Zerrendatutako aktibo guzti horietatik, zeintzuk dira zure ustez kapital honetan indartsuenak izan daitezkeenak?	Aktibo horiek bizkortuz gero, zure ustez, zertan eragin dezakete? Zein izan daiteke beren eragin-ahalmena? Zein 'palankak' aktiba ditzakete?
1. 2. ...	